

<b>DATU PERTSONALEN ARLOKO INFORMAZIO POLITIKA: LANGILEEN HAUTAKETA</b>
<b><i>Tratamenduaren arduraduna</i></b>
<p><b>LAGUNARO SERVICIOS S.COOP (aurrerantzean, LagunAro)</b>            Helbidea: Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua 1, PK 20500, Arrasate (Gipuzkoa)            IFZ F20040804            Telefonoa: 943 79 01 00</p> <p><b>DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIAREN HARREMANETARAKO DATUAK</b>            Datuak babesteko ordezkariaren helbide elektronikoa: dpo@lagunaro.es</p>
<b><i>Tratamenduaren helburua</i></b>
Datu pertsonalak tratatuko dira LagunAron hutsik dauden lanpostuak betetzeko helburuz langileak hautatzeko egiten diren prozesuak kudeatzeko eta, pertsonen baimenarekin, lan poltsa osatzeko.
<b><i>Tratamenduaren legitimazioa</i></b>
<p>Datu pertsonalak, berez, kontratu aurreko neurrien aplikazioan oinarrituta tratatuko dira, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.b) artikuluekin bat etorritik eta datuak lan poltsan sartzeko baimenarekin, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.a) artikuluen arabera.</p> <p>Desgaitasun ziurtagirien tratamendua beharrezkoa da tratamenduaren erantzulearen edo interesdunaren betebeharrak betetzeko eta eskubide espezifikoak baliatzeko lan zuzenbidearen eta gizarte segurtasunaren eta babesaren esparruan, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 9.2.b) artikuluen arabera.</p>
<b><i>Datuen jatorria</i></b>
<p>Interesduna.            Hautaketa enpresa, hala badagokio.</p>
<b><i>Datuak komunikatzea</i></b>
<p>Legez ezarritako betebeharrak betetzeko beharrezkoak diren erakunde publiko edo pribatuei jakinaraziko zaizkie datuak, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.c) artikuluen arabera.</p> <p>Datuak jakinarazi ahal izango zaizkie langileak hautatzeko arduradunaren enpresari, barne sistema informatikoak hornitzen dituen enpresari, papera suntsitzeko zerbitzua ematen duen enpresari eta langileen hautaketa behar bezala kudeatzeko behar den beste edozein enpresari, zeintzuek LagunAroren jarraibideak betez tratatuko dituzten datuak.</p>
<b><i>Nazioarteko transferentziak</i></b>
Ez dago aurreikusita zure datu pertsonalen nazioarteko transferentziarik.
<b><i>Datuak gordetzea</i></b>
Datuak gorde egingo dira hautaketa prozesuan zehar eta, pertsonak baimena ematen badigu, lan poltsan sartuko dugu 2 urtez. Horrez gain, aipatutako helburuetatik eta datuen tratamendutik sor litezkeen erantzukizunen preskripzio aldietan gordeko dira datuak.
<b><i>Eskubideak</i></b>

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatze eta lekualdatzeko, mugatzeko eta tratamenduaren aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu, baita ere, dagokionean, zure datuen tratamendu automatizatu hutsean oinarritutako erabakien xede ez izateko, LagunAroko datuak babesteko ordezkararen aurrean, helbide elektronikoa honetara jota: [dpo@lagunaro.es](mailto:dpo@lagunaro.es) edo posta helbide honen bidez: Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua 1, PK 20500, Arrasate (Gipuzkoa). Uste baduzu zure eskubideak ez direla bete, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan erreklamazioa aurkezteko eskubidea daukazu.

***Segurtasun neurriak***

Datuak modu konfidentzian tratatuko dira eta neurri tekniko eta antolaketa neurri egokiak aplikatuko dira, baimenik gabeko edo legez kanpoko tratamenduaren aurkako eta datuen galera, suntsipen edo ustekabeko kaltearen aurkako babesa barne, arriskuaren araberako segurtasun maila bermatzeko.